

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

URUMEA IKASTOLA

Anjel Alkain ezagutzen



Anjel Alkainek urte asko egin ditu Hernanin, bertakoa izan ez arren eta ondo ezagutzen du gure herria.

"Hernanin egondako urteetan hasi nintzen antzerkian"

Angel Alkainek Hernaniko institutuan ikasi zuen eta teatroa ikasten aritu zen. 1975-ean jaio zen Andoainan. Orain ETBko "Sorginen Laratzan" ari da lanean interpretazioak egiten.

Txikitik gustatzen al zitzaizun antzerkian ibiltzea?

Bai, etxean eta... egiten nituen imitazioak, baina Hernaniko institutura etorri arte ez nuen antzerkia egin.

Zenbat urte daramatzazu Goringo taldean?

Orain dela 2 urte "Kutsidazu Bidea Ixabel"-ekin sortu zen talde hau. Guk zerbait propioa egin nahi genuelako. Talde hau sortu aurretik ni taldez-talde ibili nintzen.

Pelikularen bat grabatu al duzu? Ez, telebistarekin nahikoa dut.

Zein aktore gustatzen zaizu gehien?

Ez dakit, pelikularen bat bai, baina aktorea... ez dakit ingelesez esaten den bezala ez zait okurritzen ba... Lazkao Txiki adibidez.

Inoiz egin al duzu antzerki batean neskarena?

Ez, telebistan bakarrik.

Zenbat urterekin hasi zinen antzerkian?

16 urtekin.

Kalean ikusten zaituztenean zer pentsatzen dute zutaz?

Denetatik pentsatuko dute baina jendeak agurtzen nauenean zozzerrengatik izango da. Jendeak estimatzen du zure lana eta hori nabaritzen da.

Telebistan zaudenean gaiak aldatu al duzu?

Askotan eta gainera gustatzen zait.

Umeei antzerkia erakustea proposatu al diozu zure buruari?

Askotan egin dut hori. Duela 8 urte arte ikastoletan klaseak ematen aritu naiz. Santo Tomas Lizeoan, Herri Ametsa ikastolan, Urnietan...

Ez dizu lotsarik ematen jende pila baten aurrean antzezteak?

Ez, nire lana da. Beti daukazu beldurra, testu askotako lana gustoko dut baina... lotsa aspal-di galdu nuen nik.

Zenbat denbora kostatzen zai-zue antzerkia montatzea?

Segun eta ze antzerki den. Adibidez "Kutsidazu Bidea Ixabel"-entzako totalen 5 ordu edo horrela.

Trajeak lortzea asko kostatu al zaizue?

Ez, hau baserritar jantziarekin eta listo, baina beste teatro bat egiteko, igual Madrilera joan behar dugu hemen ez daudelako. ||



❖ BIDEO JOKUA



Grand Thef Auto: SAN ANDREAS

GTA III eta Vice City ondoren San Andreas etorri da. Talde honetako bideo-jokurik famatuena da, arrakastatsuen gaur egun Gameboy-etan. Vice City-an sartutako hobekuntzekin disfrutatuko dugu efektu berri eta harrigarriekin. Adibidez: orizontearen marra urrunago dago beste GTA-rekin konparatuz eta kotxeek benetako isladak dituzte (gainera % 30 poligono gehiago ditu), C.J.-ren animazioak lasaiagoak dira.

EDUKIAK:

Kotxe berriak bizikleten barrutik datoz (akrobazi asko egin daitezkeenean) kosetxadora handiak aurki ditzakegu Blueberry-ko baserrietan, eta ez da bakarrik herria aldatzen, baizik eta BERLIN bateko esku-frenoko botoia, bizikleten saltoak, deportibo batean oxido nitrosoko tiroak, eta abar. Bitxia, ez?

NON LORTU HERNANIN?

1-Digital Cinema Paraiso (Udaletxe atzean dago) Alokairuan, lehenengo eguna 2 euro eta hurrengo egunetan eguneko 0,90 euro.

2-Onbit (Txirrita kalean ixkina egiten du) 59,99 euro erosita. Honetaz gain edozein denda espezializatu batean aurki daiteke.

TRUKO BATZUK:

Maila bat gehiago:

R1, R2, Zirkulua, R2, Ezkerra, Eskuina, Ezkerra, Eskuina.

Txalupa hegalaria:

R2, Zirkulua, Gora, L1, Eskuina, R1, Eskuina, Gora, Laukia, Triangelua.

Auto azkarragoak:

Eskuina, R1, Gora, L2, R2, Ezkerra, R1, L1, R1, L1.

JOSEBA ALVAREZ, MAITE VILLARROLAIN,
AITZIBER REDONDO
Urumea ikastola

ikasleen txokoa

'Emakumeak pilotari' egitasmoa

Egitasmoaren helburu nagusia euskal pilotaren arlo ezberdinetan garatuko da.

-Proiektua 2004/05, 2005/06 denboraldietan garatuko da.

-Proiektuan murgildu diren udalen zerrenda ondorengoa da: Azpeitia, Ataun, Arrasate, Bergara, Donostia, Hernani, Hondarribia, Irun, Tolosa eta Zestoa.

-Udal hauetaz gain, Foru Aldundiak lagunduko du eta Ikaspilotak ere bai burutu beharreko zenbait ekintzetan.

-Hiru arlotan eragin nahi du: eskola kirola, jolas kirola eta kirol federatua. Eskola alorreko jarduerak proiektuko udaletan garatuko dira.

Emakumeak pilotari sake erretoak

Gipuzkoako Diputazioa, Euskal Pilota Elkarte eta hamar udalen gerizpean Emakumea Pilotari egitasmoa martxan denez, bi emakume pilotarik egoeraren berri eman digute.

Emakumeak Pilotari egitasmoak lehen pausoak publikoki duela aste batzuk eman baditu ere, duela urte t'erditik hona prestatzen haritu diren proiektua da. Eremu horretan, gaurdaino Juan Carlos Etxeberriak lan eskerga egin du: Gipuzkoako Euskal Pilota Elkarte teknikiariak ideia garatu, plana idatzi, udaletxeekin harremanetan jarri... Proiektuaren bi modalitateei, esku-huska eta pala, bultzada ematen Maider Mendizabal pilotaria aritu da.

Emakumea eta pilotaren arteko lotura gaur goizekoa ez



Hernaniko Pelota Elkarte neskek.

dela erakusteko, Emakumea Pilotari proiektuak lehen urratsak heman ditzan Garbiñe Tijero hartu dute instituzioek eredutzat. Hernaniarrak, urteak daramatza herriko nesken artean pilota sustatzen eta egin ahal hori aintzakotzat harturik, izpiritu hori nahi dute lurraldeko herrietako pilota elkartetan, etxeetan...

Proiektuak pilotan emakumeen parte hartzea du helburu, baina azken bost urteotan lizentzia kopurua, 81etik 43ra jaitsi da. Arrazoiei gainbegiratu bat emanda, Garbiñeren ustez egoera honen jatorria da neskek garai jakin batean jokatzeari utzi egiten diotela, eta atzetik ez datozela berriak. Halere, nesketan Gipuzkoan pilota maila ona dago eta horren erakusle, erremintaz, palaz alegia, ditugun Munduko txapeldunak.

Horietako bat Maider Mendizabal da. Gipuzkoako Pilota

Elkarteko partaide eta Mexiko mundialetan trinketea txapelduna. Munduko Txapeldunaren aburuz egia da benjaminetan adibidez, nexkak pilotan aritzen direla, baina denborarekin jokatzeari utzi egiten diote. Hasieran, adibidez neskek mutilekin batera jokatzeko ez dute arazorik izaten, baina adinean aurrera joan ahala neskek gutxitu, partiduak galdu eta mutilak fisikoki indartsuagoak direnez neskek agur esaten diote jokatzeari. Porrotak garaipenak baino gehiago direnean, mutilen artean ere joera berbera izaten da, baina gehiago daude, ez da antzematen.

Emakumeek palaz soilik kokatzen dutenaren ustea badago ere, ez dira gutxi eskuz jokatzeko dutenak. ||

ITSASNE PRESA, ENERITZ PEREZ,
MAITE VILLARROLAIN
Langile ikastola

BITXIKERIAK



Oiartzunen, Ergoingo eskola zaharrean daude instrumentuak erakusgai.

Herri musikaren txokoa

JUAN Mari Beltranek "Herri Musikaren Txokoa" museoa Oiartzunen finkatuta dauka, hain zuzen ere Oiartzungo udalak utzitako Ergoingo Eskola zaharrean. Bertan Beltranek denbora luzean herri musikari buruz bildutako dokumentazio materialak agertzen dira: liburutegia, tailerra, soinu-tresnak, fonoteka, argazkiak, bideo eta zine artxiboa.

HONA HEMEN BERTAN AURKI DAITEZKEEN SAILAK:

Liburutegia

4000 aletik gora. Euskarazko liburu eta argitalpen ale berri eta zaharrak: Gure Herria, Nazioarteko Eusko Ikaskuntza aldizkaria, Eusko Folklore urtekaria, Auspoa bilduma, Auñamendi Bilduma, Kuliska Sorta (osatu gabe), Txistulari (musika, lehenengo aletik aurrera, bilduma osoa 1958-tik aurrera), Dantzariak (bilduma osoa), Interfolk Aldizkaria (bilduma osoa), Argia, Dastum (Bretaña)... Espezializatutako hiztegi eta entziklopediak, musika eta soinu-tresnetako GROVE entziklopedia bezalakoak.

Tailerra

Leon Bilbao Arteko albokari ospetsua zenaren albokak egiteko tailerreko material guztia. Tailer hau Leonen aita zen Joxe Mari Bilbaok osatu zuen.

Tailer berri bat, albokak, pitak, jostailuak eta bestelako tresnak egiteko behar diren gauzekin.

Soinu-tailerra

Euskal Herriko eta kanpoko 1.000 soinu-tresnatik gora. Sailkapen talde guztietakoak, eta munduko bost kontinentetakoak.

Fonoteka

Argitaratutako Euskal musikaren bilduma zahar eta berriak: Baionako Euskal Museoa, Agorila, Columbia, Herri Gogoa, Cinsa, Xoxoa...

Abeslari eta soinujoleak diren emaileei zuzenean grabatutako ehundaka kasete, magnetofoi zinta eta DAT.

Munduko erakunde eta musika editore ezberdinak argitaratutako herri musika (disko, kasete, CD): UNESCOko bilduma, Berlineko museoko bilduma, armonia mundi, Arion...

Argazki, bideo eta zine artxiboa

Urte askotan, bilketetan egindako ehundaka argazki. Bideo batzuk zuzenean filmatutakoak eta besteak, beste batzuek egindakoaren kopiak eta argitaratutakoak.

Badakizue, bisita egin nahi baduzue bertara joan eta animatu. ||

MIRARI PAGOLA, JUDITH GONZALEZ
Urumea ikastola

Orri honen egileak

